

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 21/2023 Foru Dekretua maiatzaren 30ekoa. Onespena ematea Batzar Nagusietarako 2023ko hauteskundeetan hauteskunde batzordeetako kideek, ordezkariak eta laguntzaileek kobratu beharreko haborokinei

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetako Batzar Nagusietarako hauteskunde buruzko martxoaren 27ko 1/1987 Legeari jarraituz, zeinak ezartzen baitu diputatu nagusiei dagokiela Batzar Nagusietarako hauteskundeetarako deia egitea, diputatu nagusiaren apirilaren 3ko 76/2023 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Lurralde Historikoko Batzar Nagusietarako hauteskunderako deia egiten da.

Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 13. artikuluko 2. apartatuan ezartzen denez, hauteskunde batzordeen esku jarri behar dira beren eginkizunak betetzeko behar dituzten giza baliabideak eta baliabide materialak. Halaber, 22. artikuluko 2. apartatuan ezartzen denez, Gobernuak finkatzen ditu Hauteskunde Batzorde Zentralari dagozkion dietak eta haborokinak, bai eta bertako langileei dagozkienak ere.

Hauteskunde Prozesuen Araubide Osagarriari buruzko apirilaren 16ko 605/1999 Errege Dekretuaren bidez –1382/2002 Errege Dekretuak emandako idazkeraren arabera–, hauteskunde batzordeetako kideek eta haiek udalerrietan dauzkaten laguntzaileek eta ordezkariak jaso beharreko haborokinei buruzko gaiak zehaztu ziren. Hala, zenbatespen irizpide ezberdinak ezarri ziren, egun berean hauteskunde prozesu bakar bat edo gehiago egiten den. Halaber, zenbatespako eguneratzeko formula ere xedatu zen, zeinen arabera gehikuntzak aplikatuko baitira administrazio publikoen zerbitzura dauden langileen ordainsariei dagokienez Estatuako aurrekontu legeek onetsitako gehikuntzen proportzio berean.

Kontuan hartuta udal eta foru hauteskundeak egun berean izateak lan handiagoa eragiten diela hauteskunde administrazioetako kideei, foru aldundiak, Batzar Nagusietarako hauteskundeak deitzen dituen administrazioa izaki, aurreko hauteskunde prozesuetan erabaki izan du Hauteskunde Araubide Orokorren Lege Organikoak agindutakoa analogiaz aplikatzea eta, beraz, hauteskunde batzordeetako kideei eta laguntzaileei Estatuak toki hauteskundeetarako adierazitako ekarpenen ehuneko 50 ordaintzea.

Horren arabera, Foru Gobernuak erabaki du haborokinak ematea hauteskunde batzordeetako kideei, ordezkariak eta laguntzaileei datozen hauteskundeetan, zeinek egingo baitute Hauteskunde Prozesuen Araubide Osagarriari buruzko apirilaren 16ko 605/1999 Errege Dekretuak 6. artikuluan zehaztutako egoerarako Estatuak ezarritako zenbatekoen ehuneko 50. Horretarako, oinarri gisa hartuko dira artikuluko horren 1. apartatuko bigarren puntuan, 3. apartatuan eta 5. apartatuan jasotako zenbatespakoak, zeinak eguneratuko baitira 10. zenbakian jasotako eran.

Bestalde, aurreko urteetan bezala, Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzordeari laguntzaileei haborokinak emateko esleitu zaion zenbatekoa finkatu da, gainerako haborokinetarako erabilitako eguneratze formula erabiliz; hau da, aurrekontuei buruzko urteko legeetan administrazio publikoen zerbitzura dauden langileen ordainsarien gainean ezarri den igoyeraren proportzio berean.

Nola Foru Gobernu Kontseiluaren foru dekretu proiektu bat den, hura egiteko, proposatutako araudiaren gaia eta edukia kontuan hartuta egokituz jotzen diren izapide eta txostenak egin dira, Arabako Foru Aldundiaren xedapen orokorrak egiteko prozedura onesten duen Gobernu Kontseiluaren otsailaren 28ko 6/2023 Foru Dekretuaren arabera.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3.5 artikuluan jasotako aginduaren arabera, ekimen honek genero ikuspegia txertatzen du, desparekotasunak ezabatzeke eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorreakin.

Hori dela bide, Arabako diputatu nagusiak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bileran aztertu ondoren,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Hauteskunde batzordeetako kideek kobratu beharreko haborokinak

1. Arabako Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzordeko kideek honako haborokin finko hauek jasoko dituzte Arabako Foru Aldunditik Batzar Nagusietarako 2023ko hauteskunde prozesuan parte hartzeagatik, Estatuko Administrazioak udal hauteskundeetarako ordaindutako haborokinen osagarri gisa:

	KOP.	ORDAINSARIA KIDE BAKOITZEKO	GUZTIRA
— Lurralde historikoko (probintziako) hauteskunde batzordeko lehendakaria	1	1.386,53 €	1.386,53 €
— Lurralde historikoko (probintziako) hauteskunde batzordeko idazkaria	1	1.270,98 €	1.270,98 €
— Lurralde historikoko (probintziako) hauteskunde batzordeko bokal judizialak eta hautesle erroldaren bulegoko ordezkaria	3	462,18 €	1.386,54 €
— Lurralde historikoko (probintziako) hauteskunde batzordeko bokal ez-judizialak	2	323,53 €	647,06 €
			4.691,11 €

2. Amurrioko eta Vitoria-Gasteizko Eskualdeko Hauteskunde Batzordeetako kideek honako haborokin finko hauek jasoko dituzte Arabako Foru Aldunditik Batzar Nagusietarako 2023ko hauteskunde prozesuan parte hartzeagatik, Estatuko Administrazioak udal hauteskundeetarako ordaindutako haborokinen osagarri gisa:

	EHB	KOP.	ORDAINSARIA KIDE BAKOITZEKO	GUZTIRA
— Eskualdeko hauteskunde batzordeetako lehendakaria	1	2	1.617,62 €	3.235,24 €
— Eskualdeko hauteskunde batzordeetako idazkaria	1	2	1.502,08 €	3.004,16 €
— Eskualdeko hauteskunde batzordeetako bokal judizialak	2	4	693,27 €	2.773,08 €
— Eskualdeko hauteskunde batzordeetako bokal ez-judizialak	2	4	415,96 €	1.663,84 €
				10.676,32

3. Haborokinak jasotzeko eskubidea kargua hartzean sortuko da, eta hauteskunde batzordeek beraien eginkizunetan diharduten denborari dagokio, eratzen direnetik legezko epea iraungi delako haien agintaldia amaitu arte.

Kideetako batek legezko agintaldia bainoaldi laburragoa egiten badu karguan, benetan karguan aritu den denborari dagokion zenbateko proportzionala jasotzeko eskubidea baino ez du izango. Hauteskunde batzordeko kide batek hainbat kargu bete baditu batzorde berean eta kargu horien ordainsariak desberdinak badira, kargu bakoitzean egondako denborari dagokion zati proportzionala jasoko du.

4. Ez da inolako zenbateko gehigarriak ordainduko bilkuretara joatearen dietengatik.

Bigarrena. Hauteskunde batzordeetako laguntzaileei ordaindu beharreko haborokinak

Lurralde historikoko eskualdeko hauteskunde batzordeetako laguntzaileen zerbitzuak ordaintzeko 2023ko Batzar Nagusietarako hautaketa prozesuan, honako zenbateko hauek aipatzen dira:

— Arabako Lurralde Historikoko hauteskunde batzordea	1.618,35 €
— Amurrioko eskualdeko hauteskunde batzordea (48 mahai)	1.331,04 €
— Gasteizko eskualdeko hauteskunde batzordea (379 mahai)	10.509,67 €
	13.459,06 €

Hirugarrena. Udaletako idazkariei ordaindu beharreko haborokinak

1. Arabako Lurralde Historikoko udaletako idazkariek, eskualdeko hauteskunde batzordeetako ordezkariak diren aldetik, haborokin finko hauek jasoko dituzte Batzar Nagusietarako 2023ko hauteskunde prozesuan parte hartzeagatik:

	KOP.	ORDAINSARIA KIDE BAKOITZEKO	GUZTIRA
— Gehienez 10 mahai dituzten idazkaritzak	48	415,96 €	19.966,08 €
— 11 - 50 mahai dituzten idazkaritzak	2	462,18 €	924,36 €
— 50 mahai baino gehiago dituzten idazkaritzak	1	508,40 €	508,40 €
			21.398,84 €

2. Zenbateko horiek jasotzeko, kontuan hartuko da zenbat mahai dauden ordezkari jarduten diren udalerrietan, alde batera utzita haiek elkartuak edo metatuak diren idazkariari dagokionez.

3. Haborokinak jasotzeko eskubidea hauteskunde prozesu osoari dagokio. Karguan denbora laburragoan egonez gero, hartan emandako denborari dagokion zenbateko proportzionala jasotzeko eskubidea izango da.

4. Hauteskunde prozesuan idazkari bat beste udal bati atxikitzen bazaio, jada jasotakoarekin dagoen aldea jasoko du, hala badagokio, destinoko udala jatorrikoa ez den beste tarte batean badago.

Laugarrena. Joan-etorrien gastuak

1. Ez da joan-etorrien gasturik sortuko, Estatuko Administrazioak ordaintzen dituen heinean.

2. Salbuespenez, Batzar Nagusietarako hauteskundearen egintza berezietarako beren-beregi egiten diren joan-etorrien gastuak ordainduko dira. Haien zenbatekoa zerbitzuaren kalte ordainei buruzko Eusko Jaurlaritzaren dekretuak jasorikoaren arabera ezarriko da. Horretarako, zenbateko esleitura handitu daiteke, aparteko gastu horiek ordaintzeko behar beste.

Bosgarrena. Ordaindu beharreko zerbitzuak

Aurreko apartatuetan finkatutako zenbatekoek prozesuaren garapen arrunta ordainduko dute, bai eta hauteskundearen eta prozesua gauzatzearen ondorioz sortzen diren bozketa ekitaldien errepikapena ere. Kasu horietan, beraz, ez da diru kopuru gehiagorik eman beharko.

Seigarrena. Haborokinak ordaintzea

1. Foru dekretu honen xede diren haborokinak hauteskunde batzordeen agintaldia amaitutakoan ordainduko dira.

2. Behin hauteskunde batzordeen agintaldia amaituta, foru dekretu honetako lehenengo, bigarren eta hirugarren apartatuetako haborokinak likidatuko dira, hauekin bat etorriz, hurrenez hurren: hauteskunde batzordeen eraketa (ALHAOn argitaratua), hauteskunde batzordeetako idazkariek egindako egiaztagiria, eta udal idazkariek bidalitako egiaztagiria, beren alkateen oniritziarekin. Arau Garapenerako eta Batzar Nagusiekiko Harremanetarako Zerbitzuaren txostena ere eskatuko da.

3. Aurreko aurreikuspenen arabera egin beharreko joan-etorrien gastuak hauteskunde prozesua amaitu ondoren ordainduko dira, gastu horiek justifikatu ondoren.

Zazpigarrena. Aurrekontu esleipena

Aurreko kontzeptuengatik likidatu beharreko zenbatekoak 02100. G/920021/22705020 Batzar Nagusietako hauteskunde gastuak partidaren kontura ordainduko dira, Arabako Foru Aldundiaren 2023ko ekitaldiko aurrekontuko gastuen egoera-orrian bereziaz. Kopuru horiek egiaztagiria jaso eta Diputatu Nagusiaren Kabinete eta Komunikazioaren zuzendaritzak ontzat eman ondoren igorriko dira.

AZKEN XEDAPENA. Indarrean jartzea

Dekretu hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko maiatzaren 30a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Kabinete eta Komunikazio zuzendaria

ELENA FERREIRA SEBASTIÁN